**2120**

AGINDUA, 2006ko martxoaren 28koa, Osasun sailburuarena, laguntzak ematekoa irabazi-asmorik gabeko elkarteei, osasun-arloko profesionalen elkargo ofizialei, irakaskuntza-batzordeei eta ikerketa sustatzeko unitateei, beren jardunari eutsi eta langileen prestakuntza-jarduerak antola ditzaten.

Biztanleriari arreta sanitario egokia ematea faktore askoren menpe dago; horien artean, pertsonal sanitarioaren trebakuntza nabarmentzen da, eta horretarako kalitatezko hezkuntza-prozesua behar da.

Irakaskuntza eta prestakuntzarekin zerikusia duten jarduera asko hainbat motatako erakundeen bidez gauzatzen dira. Erakunde horien lehentasunezko helburuen artean, euren kideen trebakuntza beste arlo zabalagoetan bilatzea dago bereziki, bai eta profesional sanitarioena ere. Beraz, lehenengo prestakuntza-zikloa amaitzen dutenean, aipatutako profesional sanitario horiek prestakuntza-jarduerak dituzte Euskadiko sistema sanitarioan, bai euren espezializazio-prozesuak dirauen bitartean, bai lanean dihardutenean.

Jarduera horiek bi motatakoak dira. Batetik, ikastaroak eskaintzen dira, kontzeptu horrek adierazten duen eduki zabala kontuan hartuta. Horretan dihardute espezializazioko irakaskuntza-batzorde eta –unitateek, ikerketa sustatzeko unitateek, osasun-arloko profesionalen elkargo ofizialek, erakunde sanitarioek eta beste zenbait erakundek ere; azken horien artean, batez ere elkarte zientifikoak daudelarik.

Baina gainera, erakunde horietako asko elkargune gisa bultzatzen dira, profesionalen arteko komunikazioa errazagoa egiteko, ezagutzaren hedapena kudeatuz. Batzuetan, bilkura zientifikoak antolatzen dira, eta beste batzuetan aldizkako edizioak argitaratzen dira.

Horren ondorioz, honako hau

EBATZI DUT:

## I. KAPITULUA
## XEDAPEN KOMUNAK

*1. artikulua.–* Xedea.

Agindu honen helburua zenbait gastu arautzea eta gastu horien finantza-laguntzetarako deialdia egitea da. Gastuen jatorriak honako hauek dira:

1.– Euskal Autonomia Erkidegoan 2006. urtean izan edo hasiko diren osasun-jarduera zientifikoen prestakuntza- eta hedapen-jarduerak antolatzea; modalitateak bi izango dira:

**2120**

ORDEN de 28 de marzo de 2006, del Consejero de Sanidad, por la que se convocan ayudas a asociaciones sin ánimo de lucro, colegios oficiales de profesionales en salud, comisiones de docencia y unidades de apoyo a la investigación, para su funcionamiento y organización de actividades de formación del personal.

Una correcta atención sanitaria a la población depende de múltiples factores, entre los que cobra una singular relevancia la capacitación del personal sanitario, para lo que se requiere un proceso formativo de calidad.

Muchas de las actividades de docencia y formación se ejercen a través de entidades de diferente índole, que buscan entre sus objetivos prioritarios la capacitación de sus miembros en particular o incluso la de profesionales en salud en ámbitos más amplios. Así, una vez terminado su primer ciclo de formación, dichos profesionales sanitarios tienen acceso a actividades de formación durante su proceso de especialización y a lo largo de su actividad laboral en el sistema sanitario de Euskadi.

Estas actividades son de dos tipos. En primer lugar, se ofrecen cursos, dentro del más amplio contenido de este concepto. En ese cometido trabajan las Comisiones y Unidades Docentes de Especialización, las Unidades de Apoyo a la Investigación, los Colegios oficiales de profesionales en salud, las instituciones sanitarias y otra serie de entidades entre las que figuran sobre todo las asociaciones científicas.

Pero además, muchas de estas entidades se potencian como lugares de encuentro para favorecer la comunicación entre profesionales, gestionando así la difusión del conocimiento. Unas veces es en forma de organización de reuniones científicas y otras mediante la edición de publicaciones periódicas.

En su virtud,

RESUELVO:

## CAPÍTULO I
## DISPOSICIONES COMUNES

*Artículo 1.–* Objeto.

Es objeto de la presente Orden la regulación y convocatoria de ayudas destinadas a financiar los gastos derivados de:

1.– La organización de actividades formativas y de difusión de la actividad científica en salud que vayan a celebrarse, o cuya organización comience durante el año 2006 en la Comunidad Autónoma del País Vasco, con dos modalidades:

a) Bilkura zientifikoak antolatzea, hau da, kongresu, sinposium, jardunaldi, mintegi eta antzeko jarduerak antolatzea.

b) Ikastaroak antolatzea.

2.– Euskal Autonomia Erkidegoan dauden irabazi-asmorik gabeko espezialitateen erakunde zientifikoen funtzionamendua, osasun-arloko profesionalei prestakuntza eta eguneratze teknikoa ematen badiete eta ikerketa sustatzen badute, honako bi modalitate hauen bidez:

a) Irabazi-asmorik gabeko espezialitateen erakunde zientifikoen sorrera edo funtzionamendurako laguntzak.

b) Aldizkako argitalpenentzako laguntzak.

*2. artikulua.–* Erakunde onuradunak.

Agindu honetako laguntzez baliatuko diren erakundeak dagokion kapituluan modalitate bakoitzerako aipatzen diren erakundeak izango dira.

Erakunde onuradunei laguntzak emateko edo, hala badagokio, laguntzak ordaintzeko, derrigorrezkoa da tramitazioan dagoen itzulera-prozedurarik edo zehapen-prozedurarik ez izatea Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta bere erakunde autonomiadunek emandako izaera bereko laguntzen edo diru-laguntzen esparruan.

*3. artikulua.–* Emate-prozedura.

Azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Herriogasuntza Nagusiaren antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginaren 51.4 artikuluan aurreikusten den lehiaketa-prozeduraren bidez emango dira laguntzak. Beraz, ematea modalitate bakoitzean aurkeztutako eskabideak konparatuta egingo da, euren artean lehentasuna ezartzeko. Lehentasun-ezartze hori egingo da, batetik, agindu honetako dagokion kapituluan eskabide bakoitzerako ezartzen diren balorazio-irizpideen arabera eta, bestetik, balorazio-fasean gutxienez hirurogei puntu lortu dituzten eskabideei bakarrik laguntzak esleituz, modalitate bakoitzari esleitutako kredituak agortu arte, kasua balitz.

*4. artikulua.–* Baliabide ekonomikoak.

1.– Agindu honen helburuetarako diren baliabide ekonomikoen zenbateko osoa berrehun eta laurogeita hamahiru mila (293.000,00) eurokoa da. Baliabide ekonomiko horiek Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan horrexetarako ezarri diren kredituetatik datoz. Baliabide ekonomikoak ondoan zehazten den moduan banatu dira deialdiaren modalitateen artean: bilkura zientifikoak: 80.000 euro, ikastaroak: 153.000 euro, erakundeen sorrera eta funtzionamendua: 36.000 euro, aldizkako argitalpenen edizioa: 24.000 euro.

2.– Aipatutako zenbatekoa alda daiteke, modalitate bakoitzean eskatutako laguntzen zenbateko osoa kontuan hartuta eta Osasun Saileko beste laguntza-progra-

a) Organización de reuniones científicas, entendiendo por tales los congresos, simposios, jornadas, seminarios y otras actividades análogas.

b) Organización de cursos.

2.– El funcionamiento de entidades científicas de especialidades, sin ánimo de lucro y con domicilio oficial en la Comunidad Autónoma del País Vasco, que faciliten al personal del área de la salud formación y actualización técnica o fomenten la investigación, con dos modalidades:

a) Ayudas a la constitución o funcionamiento de entidades científicas de especialidades sin ánimo de lucro.

b) Ayudas a publicaciones periódicas.

*Artículo 2.–* Entidades beneficiarias.

Podrán acceder a las ayudas contempladas en la presente Orden las entidades que para cada modalidad se indican en el respectivo capítulo.

La concesión y, en su caso, el pago de las ayudas a las entidades beneficiarias quedarán condicionados a la inexistencia de procedimiento alguno de reintegro o sancionador iniciado en el marco de ayudas o subvenciones de la misma naturaleza concedidas por la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi y sus organismos autónomos.

*Artículo 3.–* Procedimiento de concesión.

La concesión de las ayudas se efectuará, por el procedimiento de concurso previsto en el artículo 51.4 del Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco, aprobado por el Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre. A estos efectos la concesión se realizará mediante la comparación de las solicitudes presentadas en cada modalidad, a fin de establecer una prelación entre las mismas atendiendo a los criterios de valoración que para cada una de ellas se fija en el correspondiente Capítulo de esta Orden, y adjudicando las ayudas sólo a aquellas solicitudes que en la fase de valoración hayan obtenido un mínimo de sesenta puntos, hasta el agotamiento, en su caso, de los créditos asignados a cada modalidad de que se trate.

*Artículo 4.–* Recursos económicos.

1.– El importe global de los recursos económicos destinados a la finalidad de la presente Orden, procedentes de los correspondientes créditos presupuestarios establecidos al efecto en los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma del País Vasco, asciende a la cantidad de doscientos noventa y tres mil (293.000,00) euros, distribuidos entre las modalidades convocadas del siguiente modo: reuniones científicas 80.000 euros, cursos 153.000 euros, constitución y funcionamiento de entidades 36.000 euros, edición de publicaciones periódicas 24.000 euros.

2.– El expresado importe podrá ser modificado, teniendo en cuenta la cuantía total de las ayudas solicitadas en cada modalidad, en función de las disponibi-

metatik agortu gabe gelditu diren baliabide ekonomikoen arabera, betiere deialdiaren ebazpena gauzatu baino lehen. Osasun sailburuordearen ebazpen batek emango du horren berri.

Agindu honetan jarritako laguntza-modalitateren baten deialdia behin ebatziz gero, soberakinak gelditTuko balira, soberakin horiek deialdia ebatzi gabeko beste modalitate batzuen zenbatekoak gehitzeko gorde ahal izango dira. Egoera hori gertatuko balitz, Osasun sailburuordearen ebazpen batek emango luke horren berri.

*5. artikulua.*– Laguntzen zenbatekoa.

Laguntzen zenbatekoa zehazteko, sarrera eta gastuen aurrekontua eta bestelako finantza-iturrien existentzia aintzat hartuko dira.

Emandako laguntzak ezingo du inolaz ere eskabidearekin aurkeztutako aurrekontuan azaltzen den defizita gainditu.

*6. artikulua.*– Laguntzen bateragarritasuna.

Agindu honen babespean ematen diren laguntzak bateragarriak izango dira helburu bererako erdietsi litezkeen beste edozein motatako laguntza edo diru-laguntzarekin, baldin horrela finantzaturiko jardueraren gain-finantzaketa eratortzen ez bada. Halakorik gertatuz gero, emandako diru-laguntza dagokion gehieneko mugaraino murriztuko da.

Laguntza jasotzen duen erakunde onuradunak xede bererako bestelako laguntzarik jaso baldin badu, ahalik eta lasterren jakinarazi beharko dio Osasun Plangintza eta Antolamenduko Zuzendaritzari.

*7. artikulua.*– Eskabideak aurkezteko epea eta lekua.

1.– Eskabideak eta gainerako agiriak aurkezteko epea agindu hau indarrean jartzen den unetik hasita hilabetekoa izango da. Agiri horiek zein diren laguntza-modalitate bakoitzari dagokion kapituluan zehazten da.

2.– Agindu honetan ezarritako laguntzez baliatzeko eskabideak dagokion eredu normalizatuan formulatuko dira, nahi den laguntza-modalitate bakoitzerako, eta eskabideak Osasun Saileko Osasun Plangintza eta Antolamenduko zuzendariari bidaliko zaizkio (Donostia-San Sebastián kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz). Gainera, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan, urtarrilaren 13ko 4/1999 Legean emandako idazkeran, ezarritako beste eratan ere aurkeztu ahal izango dira eskabideak.

*8. artikulua.*– Eskabidearen hutsak zuzentzea.

Diru-laguntzen eskabideak behar bezala bete gabe etorriko balira, edo laguntza-modalitate bakoitzerako

lidades económicas no agotadas que resulten de la ejecución de otros programas de ayudas del Departamento de Sanidad y con carácter previo a la resolución de la convocatoria. De dicha circunstancia se dará publicidad mediante resolución del Viceconsejero de Sanidad.

Si resuelta la convocatoria de alguna de las modalidades de ayuda contempladas en la presente Orden existieran recursos remanentes, éstos podrán destinarse a incrementar las dotaciones de los restantes programas de ayudas aún sin resolver. De producirse dicha circunstancia se dará también publicidad de ella mediante resolución del Viceconsejero de Sanidad.

*Artículo 5.*– Cuantía de las ayudas.

Para determinar la cuantía de las ayudas, se atenderá al presupuesto de ingresos y gastos, y a la existencia de otras fuentes de financiación.

La ayuda concedida no podrá superar, en ningún caso, el déficit que conste en el presupuesto presentado con la solicitud.

*Artículo 6.*– Compatibilidad de las ayudas.

Las ayudas que se concedan al amparo de la presente Orden serán compatibles con la obtención de cualquier otro tipo de ayuda o subvención que se pudiera obtener para el mismo fin, siempre que de ello no se derive sobrefinanciación de la actuación con ella financiada. Caso de producirse ésta, se reducirá el importe de la subvención concedida hasta el límite máximo que corresponda.

La entidad beneficiaria de la ayuda deberá comunicar, a la mayor brevedad, a la Dirección de Planificación y Ordenación Sanitaria, la obtención de cualquier otra ayuda para el mismo fin.

*Artículo 7.*– Plazo y lugar de presentación de las solicitudes.

1.– El plazo de presentación de solicitudes y de la restante documentación que deberá acompañarla -y que se indica para cada modalidad de ayuda en el capítulo correspondiente- será de un mes a partir de la entrada en vigor de la presente Orden.

2.– Las solicitudes para acogerse a las ayudas establecidas en la presente Orden, se formularán, en el correspondiente modelo normalizado según el tipo de ayuda que se solicite y se dirigirán y remitirán a la Directora de Planificación y Ordenación Sanitaria del Departamento de Sanidad, c/ Donostia-San Sebastián n.º 1, 01010 Vitoria-Gasteiz, pudiendo asimismo, presentarse en las demás formas indicadas por el artículo 38.4 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y de Procedimiento Administrativo Común, en la redacción dada por la Ley 4/1999 de 13 de enero.

*Artículo 8.*– Subsanación de los defectos de la solicitud.

Si las solicitudes de subvención no vinieran cumplimentadas en todos sus términos, o no fueran acompa-

adierazten den agiriak erantsi gabe baleude, erakunde eskatzaileari hamar eguneko epearen barruan hutsak zuzen ditzala edo beharrezkoak diren agiriak aurkez ditzala eskatuko zaio. Horrela egiten ez badu, bere eskabidea baliogabetutzat joko da. Administrazioak, bere aldetik, eskabideari buruzko ebazpena eman eta jakinarazi beharko dio, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 71.1 eta 42.1 artikuluetan ezarritakoaren arabera.

***9. artikulua.***– Eskabideen ebaluazioa.

1.– Aurkeztutako eskabideak ebaluatzeko, dagokion Balorazio Batzordea eratuko da, eta kideak hauexek izango dira: presidente gisa jardungo duen Osasun Saileko Plangintza eta Antolamenduko zuzendaria, eta batzordekide gisa arituko diren Osasun Planaren zuzendariordea, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Arreta Espezializatuko Programen zuzendariordea eta Osasun Saileko I+G Laguntzen teknikari arduraduna, azken hori idazkari legez ere arituko delarik.

2.– Batzordeak, laguntza-modalitate bakoitzerako aurreikusitako balorazio-irizpideak aplikatuz, formulatu diren eskabideak ebaluatu eta dagokion ebazpen-proposamena aurkeztuko dio Osasun sailburuordeari.

***10. artikulua.***– Ebazpena.

1.– Deialdiko modalitate guzti-guztiak Osasun sailburuordeak ebatziko ditu, Balorazio Batzordeak proposatutakoa aintzat hartuta.

2.– Ebazpenak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuta jakinaraziko zaizkie erakunde interesdunei sei hilabeteko epearen barruan, agindu hau indarrean jarri den egunetik zenbatzen hasita.

3.– Aipatutako epea pasatu eta erakunde interesdunei dagokien ebazpena ez bazaie jakinarazi, interesdunek beren eskabidea ez dela aintzat hartu ulertuko dute, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 44. artikuluan ezarritakoari jarraituz.

4.– Osasun sailburuordearen ebazpenaren aurka erakunde interesdunek gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango diote Osasun sailburuari, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunetik hasi eta hilabeteko epean, aipatutako azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 114. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoarekin bat etorriz.

5.– Eskabidearekin batera aurkeztu diren agiriak berreskuratzeko epea, laguntza ukatu den kasuetan, hilabetekoa izango da dagokion ebazpena EHAAn argitaratu denetik, betiere ebazpenari ez bazaio errekurtsorik egin. Errekurtsorik aurkeztu bada, ezesteko ebazpena jakinarazten den egunean hasiko da epe hori.

ñadas de la documentación que para cada modalidad de ayuda se indica, se requerirá a la entidad solicitante para que en un plazo de diez días subsane la falta o acompañe los documentos preceptivos, con indicación de que si así no lo hiciera, se le tendrá por desistida en su petición. La Administración quedará obligada a dictar resolución expresa sobre esta solicitud, así como a notificarla, de conformidad con lo dispuesto en los artículos 71.1 y 42.1 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

***Artículo 9.***– Evaluación de las solicitudes.

1.– Para la evaluación de las solicitudes presentadas se constituirá la correspondiente Comisión de Valoración integrada por la Directora de Planificación y Ordenación Sanitaria del Departamento de Sanidad, que actuará como presidenta, y como vocales por la Subdirectora del Plan de Salud, el Subdirector de Atención Especializada del Ente Público Osakidetza-Servicio vasco de salud y el técnico responsable de ayudas en I+D del Departamento de Sanidad, que actuará, además, como secretario.

2.– La Comisión, en aplicación de los criterios de valoración previstos para cada modalidad de ayuda, evaluará las solicitudes formuladas y elevará al Viceconsejero de Sanidad la correspondiente propuesta de resolución.

***Artículo 10.***– Resolución.

1.– Cada una de las modalidades convocadas será resuelta por el Viceconsejero de Sanidad, a propuesta de la Comisión de Valoración.

2.– Las resoluciones serán notificadas a las entidades interesadas, mediante su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco, dentro de los seis meses a partir de la entrada en vigor de esta Orden.

3.– Si transcurrido dicho plazo no se ha notificado la correspondiente resolución, las entidades interesadas podrán entender desestimada su solicitud a los efectos de lo establecido en el artículo 44 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

4.– Contra la resolución del Viceconsejero de Sanidad, las entidades interesadas podrán interponer recurso de alzada ante el Consejero de Sanidad, en el plazo de un mes a partir de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco, de conformidad con lo establecido en los artículos 114 y siguientes de la Ley 30/1992 de 26 de noviembre.

5.– El plazo para retirar la documentación aportada con la solicitud, en los casos de denegación de la ayuda, será de un mes a partir de la publicación de la resolución en el BOPV, siempre que no se hubiese recurrido la misma. En caso de presentarse recurso, el plazo comenzará a contar desde la notificación de la resolución desestimatoria.

*11. artikulua.–* Erakunde onuradunen betebeharrak.

Diru-laguntzak jasotzen dituzten erakunde onuradunek honako betebehar hauek izango dituzte:

a) Emandako diru-laguntza onartzea. Horren ildotik, diru-laguntzak esleitzeko ebazpena EHAAn argitaratzen denetik 15 egun naturaleko epean erakunde onuradunak Osasun Sailari ez badio idatziz uko egiten duela jakinarazten, laguntza onartu duela ulertuko da.

b) Diru-laguntza zertarako eman zaion, horrexetarako erabiltzea eta ez beste ezertarako.

c) Kontrol Ekonomikoko Bulegoak eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak beren lana betetzeko onuradunari eskatutako argibide guztiak helaraztea, deialdi honi lotutako diru-laguntzak direla-eta galdatutako gauza guztietan.

d) Eskabidea egiteko orduan kontuan hartutako datu edo inguruabarretan edozein aldaketa gertatuz gero, Osasun Plangintza eta Antolamenduko Zuzendaritzari, ahalik eta arinen, jakinaraztea.

e) Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren babesa beren beregi adieraztea, diruz lagundutako jardueraren berri ematen duten agiri guztietan.

*12. artikulua.–* Laguntzen ordainketa.

1.– Ematen diren laguntzen ordainketa bi alditan gauzatuko da, aldi bakoitzean emandako laguntzaren zenbatekoaren ehuneko berrogeita hamarra (% 50) ordainduz.

2.– Lehenengo ordainketa 11.a artikuluan adierazten den epea erakunde onuradunaren berariazko ukorik gabe igaro bezain laster egingo da.

3.– Bigarren ordainketa diru-laguntza eman zaion jarduera gauzatu eta agiriak bidali ondoren egingo da, laguntza-modalitate bakoitzarentzat aurrerago zehazten diren epemuga eta baldintzen arabera.

*13. artikulua.–* Diru-laguntza emateko hasierako baldintzak aldatzea.

Diru-laguntza emateko kontuan eduki diren baldintzetan edozein aldaketa izanez gero, eta helburu berarekin beste erakunde publiko zein pribaturen baten beste laguntzarik eta diru-laguntzarik jaso bada, diru-laguntzaren zenbatekoa aldatu ahal izango da. Horri lotuta, Osasun Plangintza eta Antolamenduko Zuzendaritzak dagokion murrizpen-ebazpena emango du esleitutako laguntzaren kopurua berriz doitu eta egokitzeko.

*14. artikulua.–* Baldintzak ez betetzea.

Abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan ezarritakoarekin bat etorriz, zeinaren bidez arautzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kargura ematen diren diru-laguntzen berme eta ordainketen erregimena, baldin erakunde onuradunak ezarritako es-

*Artículo 11.–* Obligaciones de las entidades beneficiarias.

Las entidades beneficiarias de la subvención deberán cumplir en todo caso las siguientes obligaciones:

a) Aceptar la subvención concedida. En este sentido, si en el plazo de 15 días naturales tras la fecha de la publicación de la resolución de concesión en el BOPV, la entidad beneficiaria no comunica por escrito al Departamento de Sanidad su renuncia a la ayuda, se entenderá que ésta queda aceptada.

b) Utilizar la subvención para el destino concreto para el que ha sido concedida.

c) Facilitar a la Oficina de Control Económico y al Tribunal Vasco de Cuentas Públicas la información que les sea requerida en el ejercicio de sus funciones respecto de la subvención recibida con cargo a esta convocatoria.

d) Comunicar, a la mayor brevedad, a la Dirección de Planificación y Ordenación Sanitaria cualquier variación de los datos o circunstancias que se reflejaron en la solicitud.

e) Dejar constancia expresa del patrocinio del Departamento de Sanidad del Gobierno Vasco, en la documentación que publicite la actividad subvencionada.

*Artículo 12.–* Abono de las ayudas.

1.– El pago de las ayudas que se concedan se efectuará fraccionadamente mediante sendos abonos por importe equivalente al cincuenta por ciento (50%) de la cantidad concedida.

2.– El primer pago se realizará con carácter inmediato, una vez transcurrido el plazo indicado en el artículo 11.a sin mediar renuncia expresa de la entidad beneficiaria.

3.– El segundo se efectuará una vez realizado el evento subvencionado y el envío de la documentación, en los términos y plazos que para cada modalidad de ayuda se estipulan más adelante.

*Artículo 13.–* Alteración de las condiciones de la subvención.

Toda alteración de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de la subvención, y en su caso, la obtención concurrente de otras subvenciones y ayudas concedidas por cualquier otra entidad pública o privada, podrá dar lugar a la modificación de la cuantía de la subvención. A estos efectos, por la Dirección de Planificación y Ordenación Sanitaria se dictará la oportuna resolución de minoración, en la que se reajustará el importe de la ayuda concedida.

*Artículo 14.–* Incumplimientos.

De acuerdo con lo establecido en el Decreto 698/1991, de 17 de diciembre, por el que se regula el régimen de garantías y reintegros de las subvenciones con cargo a los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi, en el supuesto de que la en-

kakizunak eta epeak betetzen ez baditu edota laguntza beste helburu baterako erabiltzen badu, laguntza eskuratzeko eskubidea galdu egin duela eta, hala badagokio, jasotako diru-zenbatekoak eta legezko interesak Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusira itzuli behar dituela deklaratu ahal izango da, ebazpen bidez, prozedurazko izapideak egin ondoren, bidezkoak izan daitezkeen beste eginbide batzuen kalterik gabe. Aipatutako diru-kopuru horiek, diru-sarrera publikotzat hartuko dira ondorio guztietarako.

Ez betetzeagatiko espedientea hasi eta ebazteko eskumena Osasun Plangintza eta Antolamenduko zuzendariari dagokio.

## II. KAPITULUA
## BILKURA ZIENTIFIKOAK ANTOLATZEKO LAGUNTZAK

*15. artikulua.–* Helburua.

Laguntza-modalitate honen helburua da Euskal Autonomia Erkidegoan 2006. urtean izan edo antolatzen hasiko diren osasun-jarduera zientifikoen hedapenerako bilkuren antolakuntza finantzatzen laguntzea.

*16. artikulua.–* Hartzaileak.

Laguntza-modalitate hau jaso ahal izango dute irabazi-asmorik gabeko elkarteek, osasun-arloko profesionalen elkargo ofizialek, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko eta Euskal Autonomia Erkidegoko beste zerbitzu batzuetako erakundeen irakaskuntza-batzordeek, baldin barneko profesionalen osasun-prestakuntza espezialitateari buruzko programetarako irakasle izateko baimenduak badaude, Familia eta Komunitateko Medikuntza espezialitatea irakasten duten Lehen Mailako Arretako Irakaskuntza Unitateek, Psikiatria eta Psikologia Klinikoko espezialitateak koordinatzen dituzten Osasun Mentaleko batzorde aholkulariek eta Ikerketa sustatzeko unitateek.

Deialdi honetatik kanpo geratzen dira Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzukoak diren gainerako unitateak.

Erakundeek beren estatutu eta arautegiei jarraiki gauzatutako ohiko bilkurak ezingo dira diruz lagundu.

*17. artikulua.–* Aurkeztu beharreko eskabidea eta agiriak.

Laguntza-eskabidea I. eranskinean jasotzen den eredu normalizatua betez aurkeztu beharko da, eta honako agiri hauek erantsi beharko zaizkio:

a) Elkarteen Erregistroko edo kasuan kasuko erregistro publikoko inskripzio-ziurtagiriaren kopia.

b) Identifikazio Fiskaleko Kodea esleitu zaiola egiaztatzen duen agiriaren kopia.

tidad beneficiaria incumpliere los requisitos, plazos establecidos o el destino de la ayuda, se declarará, previa la sustanciación de los trámites procedimentales oportunos, la pérdida del derecho a la percepción de la ayuda y, en su caso, la obligación de reintegrar a la Tesorería General del País Vasco las cantidades ya percibidas con sus intereses legales, sin perjuicio de las demás acciones que procedan. Las referidas cantidades tendrán la consideración de ingresos públicos a todos los efectos.

Será competente para el inicio y resolución de expediente por incumplimiento la Directora de Planificación y Ordenación Sanitaria.

## CAPÍTULO II
## AYUDAS A LA ORGANIZACIÓN DE REUNIONES CIENTÍFICAS

*Artículo 15.–* Finalidad.

Es objeto de esta modalidad de ayuda colaborar en la financiación de la organización de reuniones para la difusión de la actividad científica en salud, que vayan a celebrarse o cuya organización comience durante el año 2006 y que tengan lugar en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

*Artículo 16.–* Destinatarios.

Podrán acceder a esta modalidad de ayudas las asociaciones sin ánimo de lucro, los colegios oficiales de profesionales en salud, las comisiones de docencia de las organizaciones de servicios de Osakidetza-Servicio vasco de salud y de otras instituciones de la Comunidad Autónoma del País Vasco que tengan reconocida la docencia para los programas de formación sanitaria especializada, las Unidades Docentes de Atención Primaria que impartan la especialidad de Medicina Familiar y Comunitaria, las Comisiones Asesoras de Salud Mental que coordinen las especialidades de Psiquiatría y Psicología Clínica y las Unidades de Apoyo a la Investigación.

Quedan excluidos de la presente convocatoria el resto de unidades pertenecientes a Osakidetza-Servicio vasco de salud.

No serán financiables las reuniones ordinarias que se efectúen por las entidades en aplicación de sus propios estatutos y reglamentos.

*Artículo 17.–* Solicitud y documentación a presentar.

La solicitud de ayuda habrá de formularse cumplimentando el modelo normalizado que se recoge en el anexo I, al que deberá adjuntarse la documentación siguiente:

a) Copia, en su caso, del certificado de inscripción en el Registro de Asociaciones o registro público correspondiente.

b) Copia, en su caso, del documento de adjudicación del Código de Identificación Fiscal.

c) Erakunde antolatzailearen estatutu edo arautegi ofizialen kopia.

d) Lekuan lekuko administrazio-erakundearen ziurtagiria, erakunde antolatzaileak zerga-betebeharrak ordainduta dituela edo ez dituela zertan ordaindu behar egiaztatzen duena.

e) Bilkura antolatzera bultzatu duten helburuak jasotzen dituen memoria, eta, halaber, jarduerentzat aurreikusitako hedapena.

f) Bilkura antolatu duen arduradunaren Curriculum Vitae laburtua.

g) Aldez aurreko egitaraua, zientzia-jardueraren edukia ahalik eta zehatzen deskribatzen duena.

h) Hizlari nagusien izenak, beren ibilbide zientifikoa eta profesionala laburki zehaztuz, eta Zientzia Batzordeko kideen izenak eta bakoitzaren jarduera zientifikoaren aipamen laburra.

i) Diru-sarrera eta gastuen aurrekontu zehatza.

j) Bankuaren datuak, beharrezkoa izanez gero (V. eranskina).

Azken bi urteetan laguntza-modalitate honetako deialdiren batera aurkeztu diren erakundeek ez dituzte a), b) c) eta j) agiriak aurkeztu beharko, betiere agiriok aldaketarik izan ez badute.

*18. artikulua.*– Esleitzeko irizpideak.

Laguntzen esleipena honako irizpide hauetan oinarriturik eta ondoko ponderazioarekin egingo da:

a) Jardueraren interes zientifikoa, aurkeztutako agirietan oinarrituta: 60 puntu gehienez.

b) Bilkuraren helburuak zenbateraino datozen bat Osasun Sailak Osasun Planeko helburuetan adierazitako lehentasunezko arloekin: 40 puntu gehienez.

*19. artikulua.*– Laguntzen zenbatekoa.

Laguntzen zenbatekoa zehazteko, sarrera eta gastuen aurrekontua eta beste finantza-iturri batzuen existentzia kontuan hartuko dira.

Emandako laguntzak ezingo du inolaz ere eskabidearekin aurkeztutako aurrekontuan azaltzen den defizita gainditu.

*20. artikulua.*– Ordainketa.

Emandako laguntzaren ordainketa 12. artikuluan aurreikusitakoaren arabera egingo da; laguntzaren bigarren zatia diruz lagundutako bilkura gauzatu eta amaitzen denetik gehienez hiru hilabeteko epean ordainduko da, honako agiri hauek aurkeztu ostean:

a) Diruz lagundutako bilkurak sortutako gastu eta sarrera guztien balantze ekonomikoa, erakunde antolatzailearen legezko ordezkariaren oniritziarekin.

c) Copia, en su caso, de los Estatutos o Reglamentos oficiales de la entidad organizadora.

d) Documento, en su caso, expedido por la instancia administrativa correspondiente acreditando que la entidad organizadora está al corriente o exenta de sus obligaciones tributarias de ellas.

e) Memoria en la que se recojan los objetivos que han llevado a organizar la reunión, así como la difusión prevista de las actividades.

f) Curriculum Vitae abreviado de la persona responsable de la organización de la reunión.

g) Programa preliminar, con una descripción lo más detallada posible del acto científico.

h) Nombre de los ponentes principales, con una breve especificación de su trayectoria científica y profesional y composición del Comité Científico con una breve reseña de la actividad científica de cada componente.

i) Presupuesto detallado de ingresos y gastos.

j) Datos bancarios, en su caso (anexo V).

Las entidades que se hayan presentado a alguna convocatoria de esta modalidad de ayudas en los dos últimos años, no necesitarán presentar los documentos a), b) c) y j), siempre y cuando no hayan sufrido modificaciones.

*Artículo 18.*– Criterios de adjudicación.

La adjudicación de las ayudas se realizará sobre la base de los criterios y con la ponderación siguiente:

a) Interés científico del acto en base a la documentación presentada: máximo 60 puntos.

b) Coincidencia de los objetivos de la reunión con las áreas prioritarias del Departamento de Sanidad, expresadas en los objetivos del Plan de Salud: máximo 40 puntos.

*Artículo 19.*– Cuantificación de las ayudas.

Para determinar la concreta cuantía de la ayuda, se atenderá al presupuesto de ingresos y gastos y se tendrán en cuenta la existencia de otras fuentes de financiación.

La ayuda concedida no podrá superar, en ningún caso, el déficit que conste en el presupuesto presentado con la solicitud.

*Artículo 20.*– Pago.

El pago de la ayuda concedida se efectuará según lo previsto en el artículo 12, efectuándose el abono de la segunda parte de la ayuda, tras realizarse la reunión subvencionada y presentar, en un plazo máximo de tres meses desde su finalización, la siguiente documentación:

a) Balance económico de los gastos e ingresos totales de la reunión subvencionada, con el visto bueno de la persona que ostente la representación legal de la entidad organizadora.

b) Bilkura zientifikoaren antolaketak sortutako gastu guztien jatorrizko fakturak, salbu laguntza esleitzeko ebazpenean laguntza zein kontzeptu ordaintzeko ematen den zehazten bada. Kasu horretan, aipatutako gastuei buruzko jatorrizko fakturak baino ez dira aurkeztuko.

Jatorrizko fakturak itzuli egingo dira, bidaltzerakoan hala eskatzen bada.

c) Amaierako memoria balantze zientifikoarekin, bilkurako aktak eta bertaratuei emandako materiala barne.

d) Lekuan lekuko administrazio-erakundearen ziurtagiria, bilkura antolatu duen erakundeak zerga-betebeharrak ordainduta dituela edo ez dituela zertan ordaindu behar egiaztatzen duena. Aipatutako ziurtagiriak eguneratuta egon behar du puntu honetan exijitzen diren agiriak bidaltzeko unean.

Bilkura deialdi hau indarrean sartu aurretik egingo balitz, aipatutako agiriak aurkezteko epea hiru hilabetekoa izango litzateke, Osasun sailburuordeak laguntzak esleitzeko emandako ebazpena argitaratzen denetik zenbatzen hasita.

## III. KAPITULUA
## IKASTAROAK ANTOLATZEKO LAGUNTZAK

*21. artikulua.–* Helburua.

Laguntza-modalitate honen helburua da osasun-alorreko ikastaroen antolaketaren finantzaketan laguntzea, profesional sanitarioak prestatzeko Euskal Autonomia Erkidegoan 2006. urtean egingo diren edo antolatzen hasiko diren ikastaroen finantzaketan, hain zuzen.

*22. artikulua.–* Hartzaileak.

Laguntza-modalitate hau jaso ahal izango dute irabazi-asmorik gabeko elkarteek, osasun-arloko profesionalen elkargo ofizialek, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko eta Euskal Autonomia Erkidegoko beste zerbitzu batzuetako erakundeen irakaskuntza-batzordeek, baldin barneko profesionalen osasun-prestakuntza espezialitateari buruzko programetarako irakasle izateko baimenduak badaude, Familia eta Komunitateko Medikuntza espezialitatea irakasten duten Lehen Mailako Arretako Irakaskuntza Unitateek, Psikiatria eta Psikologia Klinikoko espezialitateak koordinatzen dituzten Osasun Mentaleko batzorde aholkulariek eta Ikerketa sustatzeko unitateek.

Deialdi honetatik kanpo geratzen dira Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzukoak diren gainerako zentroak. Horiez gain, aipatutako irakaskuntza-batzordeek antolatutako ikastaroak, guztientzako programa osagarriaren barruan ez daudenak, deialditik kanpo geratzen dira.

*23. artikulua.–* Aurkeztu beharreko eskabidea eta agiriak.

b) Originales de las facturas de todos los gastos generados por la organización de la reunión científica, salvo que en la resolución de concesión se determinen los conceptos para cuyo pago va dirigida la ayuda, en cuyo caso sólo deberán presentarse las facturas originales relativas a dichos gastos.

Los originales se devolverán si así se solicita al remitirlos.

c) Memoria final con el balance científico, incluyendo actas de la reunión y material entregado a los asistentes.

d) Documento, en su caso, expedido por la instancia administrativa correspondiente, acreditando que la entidad organizadora de la reunión está al corriente o exenta de sus obligaciones tributarias. Esta certificación deberá estar actualizada al momento del envío de la documentación exigida en este punto.

En el supuesto en que la reunión se hubiese celebrado con anterioridad a la entrada en vigor de la presente convocatoria, la citada documentación deberá presentarse en el plazo de tres meses contados a partir de la publicación de la resolución del Viceconsejero de Sanidad por la que se conceden las ayudas.

## CAPÍTULO III
## AYUDAS PARA LA ORGANIZACIÓN DE CURSOS

*Artículo 21.–* Finalidad.

Es objeto de la presente modalidad de ayuda colaborar en la financiación de la organización de cursos de carácter sanitario cuya finalidad sea la formación del personal sanitario, que vayan a impartirse o cuya organización comience durante el año 2006 en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

*Artículo 22.–* Destinatarios.

Podrán acceder a esta modalidad de ayudas las asociaciones sin ánimo de lucro, los colegios oficiales de profesionales en salud, las comisiones de docencia de las organizaciones de servicios de Osakidetza-Servicio vasco de salud y de otras instituciones de la Comunidad Autónoma del País Vasco que tengan reconocida la docencia para los programas de profesionales sanitarios internos, las Unidades Docentes de Atención Primaria que impartan la especialidad de Medicina Familiar y Comunitaria, las Comisiones Asesoras de Salud Mental que coordinan las especialidades de Psiquiatría y Psicología Clínica y las Unidades de Apoyo a la Investigación.

Quedan excluidos de la presente convocatoria el resto de centros pertenecientes a Osakidetza-Servicio vasco de salud. Así mismo quedan excluidos aquellos cursos organizados por las mencionadas comisiones de docencia que no estén incluidos dentro del programa común complementario.

*Artículo 23.–* Solicitud y documentación a presentar.

Laguntza-eskabidea II. eranskinean jasotzen den eredu normalizatua betez aurkeztu beharko da, eta honako agiri hauek erantsi beharko zaizkio:

a) Elkarteen Erregistroko edo kasuan kasuko erregistro publikoko inskripzio-ziurtagiriaren kopia.

b) Identifikazio Fiskaleko Kodea esleitu zaiola egiaztatzen duen agiriaren kopia.

c) Erakunde antolatzailearen estatutu edo arautegi ofizialen kopia.

d) Lekuan lekuko administrazio-erakundearen ziurtagiria, erakunde antolatzaileak zerga-betebeharrak ordainduta dituela edo ez dituela zertan ordaindu behar egiaztatzen duena.

e) Honako hauek azaltzen dituen memoria: asistentzia-kontrolatzeko sistema, jardueraren egokitasuna, zein beharrei erantzuten dien eta behar horiek nola antzeman diren adieraziz, ikastaroaren helburu orokorrak eta berariazkoak, egutegia, giza-baliabideak irakasle nagusien izena eta posizioarekin, baliabide materialak, ikasleak aukeratzeko mekanismoak, irakasteko metodologia, eta azken ebaluazioko sistemak.

f) Ikastaroa antolatu duen arduradunaren Curriculum Vitae laburtua.

g) Aldez aurreko egitaraua, ikastaroaren edukia ahalik eta zehatzen deskribatzen duena.

h) Diru-sarreren eta gastuen aurrekontua, kontzeptuen arabera xehakatuta.

i) Hala badagokio, emango den diploma edo ziurtagiria.

j) Jardueraren egiaztapen-agiriaren kopia.

k) Bankuaren datuak, beharrezkoa izanez gero (V. eranskina).

